


aibala!

ARAMAIO

EZAGUTZERA GOIEZ
ZER GINEN ETA
ZER GAREN. ZER
IZEN GURE DOGUN
JAKITEKO.

2023ko Uztaila / 2. zenbakia



Aramaioko inudeak



Mendez Nuñez 14.
ZARAGOZA

AURKIBIDEA

03

Argazkia

Paisaia

04-05

Gure enpresak

Errez kooperatiba

Gure fauna eta flora

Liztor asiarra

06-07

Erreportajea

Oleta herriaren historia

08

Kantu eta kontuak

Kukuak

09

Gure ondarea

Haizea dator...

10-11

Abesbatza

Bizente Goikoetxea abesbatza

12-13

Bitxikeriak

Aramaioko amandre esneduna.

14-15

Atzo eta gaur

Eustaki. Oraitzapen biziak

16

Lehiaketa

Aramaixon bai.

Baina non dago?



1 zenbakia

Argitaratzailea: Aramaioko Udala

Koordinazioa eta erredakzioa:

Aramaioko Udala eta

Arteman Komunikazioa

Tirada: 700

Sareak www.aramaio.eus

 aramaixobizirik

 Aramaioko Udala

editoriala

Uda bete betean heldu zaigu Aibalako ale berria. Belarretan aritzeko sasoa da, egun luzeetaz gozatzeko garaia, lana, pizsina, mendia, herrietako jaiak, hondartza... uztartzeko denbora. Eguzkiaren argia lagun, irakurleok, esku artean dituzuen hitzei bizitza emango diezuelakoan gaude. Horregatik, elkarlanean, ilusio handiz prestatu ditugu artikulua hauek.

Udaberria atzean utzita, gogora ekarriko dugu urtaro honi sarrera ematen dion kukua. Oleta auzoko pasadizo eta bitxikeriak izango ditugu irakurgai. Liztor asiarrak gure erleei eragiten dizkieten kalteak ezagutuko dugu baita Tantai kooperatibaren ibilbidea ere. Bizente Goikoetxea abesbatzaren nondik norakoen berri ere ematen dugu erreportaia batean. Badira beste bi erreportaia berezi ere. Bata Eustaki Agirianoren ingurukoa da, Aramaioko pertsonarik adinekoena da bera eta tamainako ezagutza eta memoria du. Bestea Justa Lonbide Unzuetaren bizitzaren ingurukoa da. Mondragon familiari esker ezagutu dugu beraien senide izan zen emakume hau. Bera inudea izan zen Zaragozan. Bere istorioak zirrara berezia eragin digu eta gehiago jakiteko gogoia piztu digu.



Paisaia

Doinua: Ari naizela ari naizela.

Egileak: Aramaioko bertso
eskolako gazteak.

Argazkia: Alex Mendikute Ibabe

Historiaren hariak badu
nahiko aro eta adin
teilatu baten zulotik sartu
liteke sotil ta arin
nahi dugun eran behar diogu
jostorrazari eragin
errota-ardatz erraldoietan
korapilatu ez dadin

Bi harri izan zitezkeenei
horma sendoek jarraitu,
egur, artalde, neguko babes...
ta postalean amaitu.
Teilatupeko ahotsak balu
esaldi bakarra aipu:
“Basotik jaten genuen lehen,
orain basoak jan gaitu”.

Mendizaleen pausu zarata
Edo txorien kantua
Toki onean eraikitzeko
Egina zuten hautua
Zulo gehiegi begi bistara
Badauka nondik sartua
Babeslekua deitu ezkeru
Falta zaio teilatua

Babeslekua zena aspaldi
zulo ta arima uzte
baten osteko babesik eza
da txabolaren erauste...
Zeren txabola jauzia artean,
diru-gose handi-uste,
Mugitzen diren dorre zuriak
eraiki gura dituzte...

MARKEL ARRIOLABENGOA MARTIARENA

Errez kooperatiba

BOST URTE PASA DIRA JADA ERREZ KOOPERATIBA SORTU GENUENETIK. DENBORAK AURRERA EGIN DU, GURE TXOKOA AURKITU DUGU BASOGINTZA SEKTOREAN, ETA TALDEA HANDITUZ JOAN DA. GAUR-GAURKOZ SEI LAGUNEK OSATZEN DUGU ERREZ. BULEGOA ARBEL-EKO ERAIKINEAN DUGU. EGIA ESAN, LAGUNTASUN HANDIA IZAN DA GURETZAT; ASKO EMAN DIGU ETA ASKO ZOR DIOGU ARBELI, MODU BEREZIAN BERTAKO LANGILEEI.

Batzuek ezagutuko duzue Errez, beste askok ez. Labur esanda, ikerketan eta basogintzan aritzen gara, gehienetan biak uztartuz.

Zalantza handiak sortu dizkigu hasieratik gaur egungo basogintza ereduak, eta alternatibetan zentratu gara. Denbora handia eskaini diogu formakuntzari, Ingalaterran eta Frantzian izan gara bereziki, eta bertan ikasitakoa gure testuingurura ekartzeko lanetan ari gara orain. Proposamen argi bat dakargu; bertako ekosistemak berreskuratzea eta modu jasangarri eta arduratsuan zaintzea. Halaber, egurraren ustiapena maximizatzen duen eta gainontzeko ekosistema zerbitzuak baztertzen dituen basogintza eredu atzean utzi eta ekosistemen oreka eta osasuna lehenetsiko dituen basogintza eredu salto egitea. Izan ere, zientziak behin eta berriz erakutsi du, uraren kalitatea hobetu nahi badugu, CO₂ gehiago xurgatu nahi badugu, basoko gaixotasun eta izurriteak gutxitu nahi baditugu, eta zerbitzu guzti hauek zainduz herri gisa behar ditugun basoko lehengaiak (egurra, zura, etab.) ekoiztu nahi baditugu, bertako basoak berreskuratzea behar ditugula eta modu jasangarrian kudeatu.

Basogintza eredu aldatzea

Esan beharrik ez da, Euskal Herriko basogintza eredu aldatzea erronka



handia dela, handiegia agian. Baina ahalegina egin nahi dugu, eta horretarako sortu berri dugu Tantai Baso Jabe Kooperatiba. Errez-ekhasi duen bideari jarraipena emango dio Tantaik, indar handiagoz eta modu kolektiboagoan. Irabazi asmorik gabekoa da, ondorioz, etekin ekonomikoak proiektua indartzera bideratuko dira. Hiru bazkide mota ditu: langileak, baso jabeak eta laguntzaileak. Helburu argia; bertako ekosistemak berreskuratzea eta herri gisa kontsumitzen ditugun

basoko lehengaien ekoizpenaz arduratzea. Hau da, gure aztarna ekologikoaren kargu egitea. Izan ere, ekoizpenari uko egitea ez baita aukerazilegibatgureustez; herrialde pobretuen gain ezartzen dugun zama handitzea litzakeelako, finean, kolonialismoa indartzea. Beraz, nekazaritzan hainbatekegin bezala, agroekologia mugimenduak kasu, basogintzan ere ekoizpen eredu ber-asmatu nahi dugu.

Laguntzaileek ekonomikoki lagunduko dute proiektua urteroko

XABIER HERRARTE ETA JESUS GARDOKI

LIZTOR ASIARRA: jatorria, egungo egoera eta etorkizuna

kuoten bidez, langileok aholkularitza, gidaritza eta baso lanakegingo ditugu, eta basojabeek beraien basoak kudeatzeko talde espezializatu bat izango dute eta beraien basoetatik sortutako etekinak jasoko dituzte.

Hasi besterik egin ez garen arren, emaitza politik ari gara eskuratzen, eta ilusioz beterik gaude. Buruan dugu epe laburrean su egurra egiten hastea eta basoko lanetarako langile koadrila espezializatu bat sortzea. Epe ertainean auskalo. Ametsak barra-barra eta espektatibak altu. Lan esparrua Euskal Herria dugu, eta gaur-gaurkoz bereziki Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako bazkideak ditugun arren, nazio mailako proiektzioa dugu.

Honek guztiak lantaldea handitzera eraman gaitu eta dagoeneko txiki gelditu zaigu orain arteko bulegoa. Bi urte egin ditugu Aramaion bulego bila; Udaletxera jogenuen, norbanako ezberdinekin egon gara... baina oraingoz ez da aukerabideragarririkazaldu. Beraz, izugarritzko tristurarekin baina Arrasatera joatea erabaki dugu. Garrantzia berezia du guretzat herrian geratzeak eta proiektu hau Aramaion geratzeak; aldiz, ez dugu joatea beste aukerarik izan. Hala ere, badugu bueltatzeko esperantzarik.

Aurrerantzean ere izango duzue proiektuaren berri. Oraingoz, talde osoaren partez mila-mila esker babestu gaituzuen guztiori, indar handia eman diguzue-eta. Besarkada bana!

Badirudi 2004an heldu zirela Bordelera lehen liztor asiarrak itsasontzi batean egur artean. Asko ari da zabaltzen; iaz, esaterako, ikaragarri zabalduzen espeziea, haientzat oso uda ona egin zuen-eta. 2010 inguruan, Pirinioetatik barrena Espainian sartu zen. Hipotesia da erregina batetik sortu duela "inbasio" hau guztia. Ziurra dena da ugaltzeko gaitasun izugarria dutela; zientzialariak ere harrিতuta daude. Horrek beldurra eta alarma piztu ditu.

Liztorrak berak ez du okelarik jaten, nektarra baizik. Baina larben elikadura proteinan oinarritzen da, eta horretarako, erleak harrapatzen dituzte. Datuen arabera, larben dietaren % 60 erleak dira, eta gainerakoa beste intsektu batzuk. Beraz, beste intsektu batzuk ere kaltetzen ditu kanpoko espezie honek.

Orain arte bakoitzak etxean egindako tranpak erabili izan ditu; lana modu boluntarioan egin da. Aurten, berriz, erlezain batzuk elkartu gara eta, udaletxearen laguntzarekin, Aramaion barrena tranpa mordoxka bat jarri ditugu. Tranpak udaberrian jartzen dira; izan ere, garai horretan ateratzen dira lurrazpitik erreginak lozorroan egon ondoren. Hori gertatu eta abia sortzen hasi bitarteko denbora tartean harrapatzea da helburua.

Tranpak jarrita, horien jarraipena egiten ari gara; ikusi egin behar zein den emaitza. Maiatzaren bukaeran jaso genituen tranpak. Gero, zenbat harrapatu diren eta non aztertuko dugu. Urtean zehar jarraipen eta ebaluazioa egingo dugu, ikusteko zenbat kabi eta zer lekutan aurkitu ditugun. Horrela, hurrengo urterako ondorio batzuk aterako ditugu.

Helburua da liztor asiarra kontrolatzea

Gaur-gaurkoz ez dago beste modurik arazo honi aurre egiteko. Liztor asiarra ez da desagertuko, helburua kontrolatzea da. Gurean ez du harrapakaririk. Zapelatz liztorjalea da berez liztor honen harrapakari, baina hemen ez dago.

Jatorriko ekosistemetan, erleek badute defendatzeko modua: erlauntzaren tenperatura igotzen dute, eta horrela, liztorra ito egiten da. Dena den, urte asko pasa beharko dira hemengo erleek defentsa sistemaren bat garatu arte. Bertako espezieek liztorraren kontra egin dezaten liztorra bera ekosisteman integratuta egon behar da.



RAFAEL UNZALU URIARTE



OLETA HERRIAREN HISTORIA

GAURKO EGUNEAN OLETA DEITZEN DAN HERRIA JUAN ALONSO DE MUXIKA Y ARAMAIONAREN, ARAMAIOKO JAUN ETA JABEAREN, AGINDUZ SORTU ZEN. JATORRIZKO IZENA MUXIKA-OLAETA ZEN. EZ DAUKAGU DATA ZIURRIK, BAINA USTE DOGU XIV. GIZALDIAREN AZKENETAN EDO XV.AREN HASIERAN FUNDATU ZELA.

Dakiguna da XV. gizaldian herri honetan hiru burdinola ekoizpen bete-betean zebiltzala, eta horrela jarraitu zutela XIX. gizaldira arte: Goiko Ola, Erdiko Ola edo Plaza Ola eta Aurtola. Oraindik agerian daude eta ondo kontserbatuta azken oleren aztarnak.

Burdinolen inguruetan zeuden langileen etxebizitzak. Garai hartan, herri honetako biztanle gehienak ikazkinak eta olagizonak ziren; eta, neurri apalagoan, artzainak eta nekazariak. Uda sasoiari, pertsona batzuk basora joaten ziren herri hurbiletako pagadietara ikatzera egitera, eta beste batzuk, Anboto eta Arangioko maldetara burdingaia bilatzera. Minerala batu eta burdinoletako inguruetara garraiatzen zuten. Neguan, “olagizon” bihurtzen ziren gehienak. Errekako uraren ugaritasunaren laguntzaz, burdingaia garbitu eta, ikatzaren berotasunekin, urtu egiten zuten.

XVIII. gizaldian, burdinolen esplotazioa gutxitu zenean, oletarrek euren ogibidea aldatu behar izan zuten. Gehienek artaldeak eta behiak ipini zituzten, eta nekazaritzan be sartu ziren neurri txikiagoan izan arren.

XVIII.MENDEANOGIBIDEA ALDATU

XVIII. gizaldian, burdinolen esplotazioa gutxitu zenean, oletarrek euren ogibidea aldatu behar izan zuten. Gehienek artaldeak eta behiak ipini zituzten, eta

nekazaritzan be sartu ziren neurri txikiagoan izan arren. Gaureguneko egoera hauxe da: hiru pertsona soilik dedikatzen dira abeltzain izatera eskusiboki –bi artaldeekin eta bat behiekin–. Gainerako biztanleek beste herri batzuetako enpresetan egiten dute lan.

Oleta Aramaioko bailaratik kanpo dagoen herri bakarra da. Anboto eta Arangio mendien barrenean kokatuta dago. Bere lurra sakonak dira, aukerakoak haritz eta pagoak hazteko. 582 m-ko altueran dago eta 122 biztanle ditu –1860an 415 pertsona egon ziren erroldatuta–. Herri hau Aramaioko udalerraren parte da, baina, Arabako herri txiki gehienek bezela, erregimen administratibo berezia dauko: “Administrazio Batzarra”. Oletako plazatik Aramaioko Udaletxera 9 km daude. Beharbada distantzia-urruntasuna izango da herri honen administrazioaren berezitasuna.



OLETAKO HARITZAK

Herri honetako lur sakonetan haritz tantai ikaragarriak hazten ziren, eta beren fama urrutira ailegatu zen. Esaten dute, Espainiako errege Felipe II. arengaraian, *Armada Garaezineko* gerra itsasontzi batzuk Oletako haritzekin egin zituztela. Gaur egun badago baserri bat “Haritzandietari” deitzen dena.

MUSIKA

Egia da elizate honetan ez dala egon musikari ospetsurik, baina nik uste dut aipatu behar dogula oletarren aberastasuna musika arloan. Resurreccion Maria de Azkuek, 1920an Oletatik pasatu zenean, hainbat melodia eder hartu zituen Cancionero Popular Vasco izenez argitaratu zuen kantutegirako. Abeslariak Engrazia Lazkano eta Ziriako Pujana izan ziren. Gabon kantak, maitasun abestiak, dultzainarako martxak, txistuarekin interpretatzeko obraketa dantzarako melodiak bildu zituen.

Esan beharrekoa da Oletako dantza kantu baten doinuan oinarritutadagoala “Eusko Gudariak” abestia, eusko gudarien ereserkia.

Resurreccion Maria de Azkuek Engrazia Lazkanori hartu zion. Jatorrizko testua horrela da: “Atzo Bilbon nenguan ta gaur Bitorian / Sarri ura agortu da gure iturrian...”

Oletako dantza kantu baten doinuan oinarrituta dago “Eusko Gudariak” abestia, eusko gudarien ereserkia

OLETA ETA IBARRA

Lehenesandutaramaioko Udaletxea Oletatikoso urrundagoela. Kontuan hartzekoa da, gainera, 1980. urtera arte ez zela egon errepiderik Oleta eta Ibarra lotzen zuenik, beraz, bidaiak oinez egin behar ziren. Distantziaren ondorioz herri honetako biztanle bati gertatutako pasadizua kontatuko dut:

1807. urtekootsailean Aramaioko Udaletxera joan zen derrigorrezko zeregin bat betetzera, beharbada zergak ordaintzera. Gizon heldua zen, baina oraindik sasoi onekoa.

Esteban Goikolea deitzen zen, eta Apietako baserrian bizi. Ibaratik itzultzerakoan gaba etorri zitzaion eta elurra gogor botaten zuen. Iluntasunaren eraginez, Maltzetako eremura iritsi zenean, bidea galdu zuen, eta bere etxetik gutxi gorabehera kilometro batera zegoela, hil egin zen. Senitartekoez harrizko gurutze bat jaso zuten toki berean, eta oraindik han dago zutunik, urruntasunaren ondorio larri baten lekuko.

Zein da oletarren sentimendua? Zein iritzikoak gara pertsona bezela...? Arabarrak...? Ez. Bizkaitarrak...? Ez. Aramaiotarrak...? Ez.

Oletarrak bakarrik, gehiago barik.

*Oleta herri maitia
Euskal Herriko zatia
bihotza zabal-zabalik
natorkizu gaur zugana
mundua dala diote
gauza eder askoz betia
baina niretzat zara zu
denen artean onena*


ARANTXA OZAETA ELORZA / DIBINA ARRIOLABENGOA IBABE

KUKUA

Kukuak martxoaren 25ean pasatzen ei du Erromako zubia. Eta martxoaren 25ari Andra Marti Martiko esaten diote gure herrian, Aramaion, amamek eta aittettek, oraindik ere santu-santakin, amabirginekin eta elizako doktooreekin osatutako egutegia darabiltenak. Martiko Andra Mari, martxoko Andra Mari da, martxoaren 25a. Gure belaunaldiak apenas bereizten ditu San Juanak, San Pedroak eta San Martinak...

Kukuari buruz gauza asko esaten da gure herrian. Esaten da zazpi urte eman zituela eskolan eta soilik “ku-ku” esaten ikasi zuela. Errua soilik kukuarena izango ote zen? Irakasle onak izan zituen ala soilik errepikarazi eta errepikarazi egiten zioten gajoari... Rufina Astola Dukienekoak kukuak gosearekin lotzen zuen. “Kukuek gosie ekarten dau” esaten zuen. Eta bai, kukuak etortzen zenerako, udaberriatari, gan barak hustuta zeuden baserrietan, eta artean uztaileko uzta urruti. Kukuarekin gosea etortzen eta kukuak joaterakoan gosea bukatzen zen.

Zeren kukuak San Pedroak arte kantatzen du, ekainaren 29ra arte. Eta egutegi kontuetarako, berriro santuak ekarri behar. Halaxe esaten da Aramaion: “Kukuak San Juanetan egiten du ku-ku, San Pedroetan gelditzen da mutu”. Bost eguneko bitartehorretan non baiterabakitzen dau kukuek aurtengo agatik nahikoa

EDUR
HORTA
BARRIA

esanda dagoela... eta hortik aurrera gurago izaten da entzutea esatea baino.

Gure herritik ez oso urruti, Otxandion, kukuari hauegaldetzen zaio: “Kuku, zerbat urte ematen didazu?” Eta kontatzen hasten zara, berak zenbat ku-ku jo, zuk horrenbeste urte hartuko dituzu. Umetan egiten genuen jolas hori eta orain jada ez daukagu gogorik galdera hori egiteko kukuari.

Kukuari buruz oso kantu ederra kantatzen dute Imanolek eta Pako Ibañezek: “Kukuak primaderan egiten du ku-ku, biziaren esperantza erakartzen dauku”.

Kukuak egutegia da, denbora neurtzeko modu bat, ziklo baten hasiera eta itxiera. Urte berri baten

esperantza dakar, eta desio dugu datorren urtean ere kuku hori entzutea.

Ezpada akabatzen guretzat mundua, berriz ere entzunen da kukuen oihua.

Entzunen al dut berriz heldu den urtean, ez dut gozorik berriz hura entzun artean.

Halaxe esaten da Aramaion: “Kukuak San Juanetan egiten du ku-ku, San Pedroetan gelditzen da mutu”.

LIERNI ALTUNA UGARTE

HAIZEA DATOR...



Haizeakeragin handia dauka naturan zein pertsonongan. Aramaio udalerrri handia da, hainbat bailaratan banatuta dagoena. Bailarek haizeen gorabeherak aldatzen dituzte auzoa edota kalea dagoen kokapenaren arabera. Adibidez, Arexolan eta Barajuenen edota Untzillan oso desberdin jotzen du amillenak: Arangiotik behera betebetan jasotzen du haize hori Arexolak, eta Barajuenera eta Untzillara ostean heltzen da.

Haizeekin lotutako ondoriak aldatu egiten dira auzunez auzune. Adibidez, Oletan esaten dute mendebalak ekartzen diela itsasoko haizea, umela eta beroa. Aramaioko gainontzeko auzuneetan, aldiz, mendebala haize bezala ez da horrenbeste sumatzen -Arangioko mendizerrak eragina baretuko duelako ziur asko-, baina harria umeltzen du, eta adibidez, udaletxe azpiko harria edota edozein baserrikakoa busti dagoenean mendebala sartu dela esaten dugu.

Haizeak soinuak ere ekartzen ditu, eta aixolarrek

aipatu izan dute antxierra dagoenean kaleko (Ibarrako) kanpaiak entzuten dituztela eta bestela ez. Era berean, ekialdeko haizeak jotzen duenean, auzo batzuetan Oñatiko plater-tiroko zaratak entzuten dira.

Bestalde, zenbaitetan ez dago guztiz argi haize izenek zeri egiten dioten erreferentzia haize motari edota haize horrek sortzen duen efektu meteorologikoari. Hori da amillenaren beraren kasua,

bai eta oletarrek zurdie deitzen dioten hego-ekialdeko haize hotzarena ere.

Oraingo honetan ahalegin bat egin dugu Aramaion zer haize ditugun jasotzeko, eta horiek tokian toki dituzten ondorio batzuk hona ekartzen ahalegindu gara, baina osatzen joan beharra dago, naturarengandik gero eta urrunago bizi garen honetan horrelako gauzak galtzeko arriskua dagoelako.

Beraz, ongi etorriak izango dira interesa duen edonork hemen jasotakoari egin nahi dizkion zuzenketa, ekarpen edo dena delakoak.

“Ahalegin bat egin dugu Aramaion zer haize ditugun jasotzeko, eta horiek tokian toki dituzten ondorio batzuk hona ekartzen”

CRISTINA ETXENUSIA IRURE, MIREN LAZKANO BALTZATEGI ETA MERTXE MONDRAGON AIASTUI

BIZENTE GOIKOETXEA ABESBATZA, ibilbide oparodun taldea

Ezaguna da Aramaion musikak betidanik izan duen garrantzia eta presentzia; txistulari ezagunak eman ditu herriak, esaterako; trikitixa ere ez da falta izan. Gaur egun bizirik dago musikarekiko grina, eta talde zein banakoen adibide dezente ditugu. Taldeko musika adierazpenen artean Bizente Goikoetxea abesbatza daukagu.

Hastapenetatik koruan parte hartu duten bi protagonistarekin izan gara; hain zuzen ere, Victor Mendialdua Errarterekin eta Juan Jose PolIbaberekin. Mendialdua organo jotzailea da, abesbatzaren fundatzaileetako bat; Polek, berriz, hasieratik jardun zuen kantuan koruan, eta taldeko administrazio lanez ere arduratu izan da.

Patxadaz hartu dugun elkarrizketan, abesbatzarekin lotutako hainbat konturen berri eman digute: herriko koruan nola hasi ziren, taldeak izan duen bilakaera, askotariko bizipenak, etorkizuna nola ikusten duten... Hurrengo lerrootan jaso ditugu horiek guztiak.

10-12 urte zituela hasi zen Juan Jose koruan kantatzen; Andrés Agirre

parrokoak solfeo pixka bat erakutsi zion. Umeek Sabas Amilbururekin ikasten zuten solfeoa –1.908 urte inguruan eta ondorengoetan–, haren semea, Roque Amilburu, abesbatzako organista izan zen ondoren. Victorrek 64 urte darama organoa jotzen; Fidel Ibargutxi apaizarekin ikasi zuen, pianoa irakasten baitzien hurrei.

Bi mende baino gehiago

Ez dakigu zehazki noiz sortu zen korua, baina uste da bi mende baino gehiago badituela. Bi protagonistek kontatu digutenaren arabera, Ibargutxiren etorrerak bultzada handia eman zion abesbatzari 40ko hamarkadaren lehen urteetan. Parrokiako organista gisa etorri zen Aramaiora; dena den, berak korua zuzentzen zuen, eta Roque Amil-

buruk jotzen zuen organoa.

Askotariko emanaldiak eskaini izan ditu abesbatzak. 50eko hamarkadan antzerki asko egoten ziren, eta kantatu behar zenean, koruak betetzen zuen lan hori. Zartzuelak eta gabon kantak ere egin izan dituzte. Aste Santuetako prozesioak ere gogoan izan dituzte, indar handia baitzuten. Koruko 40 lagun inguruk kantatzen zuten ostegun eta ostiral santuetan.

Parrokia koru gisa jaino

Parrokia koru gisa jaino zen, eta, ondoren, 1987an Elkarteen Erregistroan izena eman zuten eta orduan hartu zuen Bizente Goikoetxearen izena, Aramaioko seme kutunaren omenez. 1993an Arabako Koruen Federazioan sartu zen. Federatzearekin bat, jarduna biziagotu zuten eta koruaren partaidetza ere hazi egin zen: 50 lagun izatera iritsi ziren. Arrasatetik ere etortzen ziren 7-8 lagun. Aramaion aritzeaz gain, Araban eta bestelako probintzietan ere kantatzen hasi ziren. Katalunia eta Gipuzkoako hainbat korurekin trukeak egin zituzten.

Kontatu digutenez, asko bidaiatu zuten garai batean: Madrilera, Bartzelonara, Toledora... Nazioarteko abesbatzak ere etorri izan dira



Aramaiora Arabako Koru Aste Internazionalaren bueltan. Gogoan ekarri dituzte ekialdeko Alemaniako abesbatza bat, Berlingo murrua erori eta gutxira etorri zena, bai eta Poloniako beste abesbatza bat ere, hura ikustea izan zen ikuskizunagatik.

Emakumeen abesbatza garrantzitsua

Askok ezagutzen ez dutena da Fidel Ibargutxi apaizaren garaietan emakumeen abesbatzak protagonismo berezia zuela, kalitate handikoa baitzen. Bi ahotsetan kantatzen zuten, eta 30 partaide inguru omen zituen. Haien artean bi emakume nabarmentzen omen ziren: Miren Unzueta eta Ines Ormaetxea. Garaiak aldatzearekin batera, emakumeen partaidetzak behera egin zuen, kanpora joaten zirelako ikastera, batetik; eta, bestetik, lan merkatuan sartu zirelako.

Emakumeen koruaz aparte, umee-na ere egon zen, bai eta zortzikote bat ere. Azken horrek, 1963an, Arabako Zortzikoen Txapelketan lehen saria irabazi zuen.

Fidel Ibargutxi apaizaren garaietan emakumeen abesbatzak protagonismo berezia zuela, kalitate handikoa baitzen. Bi ahotsetan kantatzen zuten, eta 30 partaide inguru omen zituen.

47-48an Lekeitioko organista izendatu zuten Fidel Ibargutxi eta Aramaio utzi zuen. Ondoren, beste zuzendari asko izan ditu abesbatzak: Roque Amilburu, Pako Salaberri, Martin Arana, Tere González, Juan Amilburu, Sabin Salaberri eta Esther Mendialdua. Gaur egun Antonio Errarte da zuzendaria, eta hura ez dagoenean, Angel Astondoa aritzen da zuzentze-lanetan.

60ko hamarkadan Paco Salaberrik solfeo eskolak ematen zizkien Aramaio umeei. Horieta batzuk, gaur egun helduak, egungo koruko kide dira. 25 partaidez osaturik dago egun taldea. Abesbatzaren etorkizuna ez dute zalantzan jartzen gaurko bi elkarrizketatuek, hori bai, Victor organista ordezkaturiko duen inor aurkitzeko zailtasunak egongo dira, haien arabera. Izan ere, organista izateakigande guztiak konprometitzea dakar.

OIHANA AMESKUA PEREZ

Aramaioko inudeak



Justa Lonbide Unzueta gaztetan.

Pertsona arruntei buruzko istorioek Historiak ixilean utzi dituen kontakizunak gordetzen dituzte sarri. Senideek eta auzokideek ahoz aho transmititu izan dituzte aurreko garaien berri ematen diguten kontuak. Beste batzuetan, argazki zaharrek pizten digute izan ziren bizitzen inguruko jakinmina. Familia-argazki zaharrez betetako kutxa bat zabaldu eta behean ageri den emakumearen istorioaren oihartzuna heldu zaigu.

(I)Inudea: **Inude** edo **hazama** bere haurra ez den jaioberria bere esneaz, bularra emanda, hazten duen emakumea da.

Bera Justa Lonbide Unzueta da. Ustez 1872an jaio zen eta Aramaioko Nardeaga kaleko etxe xume batean bizi izan zen. Badakigu Joakin Ayastui Gardokirekin ezkondu zela eta 11 seme-alaba izan zituela. 1898an jaio zen lehen semea. Hirugarren edo laugarren semea izan ostean Zaragozara abiatu zela ere kontatu digute senideek. Han familia aberats batentzat lan egin zuen inude gisa, bere esnearekin ume jaioberri bat hazten.

Justaren kontakizuna garai hartako emakume askorena ere bada. Beraien istorioa isilunez beterik dago eta gehiago da kontatu gabekoa hitzez esandako baino; horregatik galderak dira nagusi: Zer bultzatzen zituen etxean haien umeak utzi eta urrutira joatera? Zer sare zegoen emakume hauen eta hiriburu etako familia aberatsen artean? Zer harreman sortuko ziren familia horien baitan? Zeintzuk ziren inudelanean aritzeko baldintzak?

Inguruan galdezka, Aramaion, XIX. mende amaieran eta XX.aren hasieran zeregin horretan emakume asko aritu zirela ondorioztatu dugu. Penintsula iparraldeko herri askotan istorio berbera errepikatu egiten da. Kantabriako Pasbailarako emakume asko ere zeregin horretara abiatu ziren. Beraien lana nahiko dokumentatua dago eta horretan oinarritu gara Aramaio eta inguruko inudeen errealitatea ulertzen saiatzeko.

Antza denez, praktika hau gortean eta familia boteretsuetan ohikoa zen. Batzuetan, familiako emakumeek beraien esnearekin umea hazi ezin zutenean edo nahi ez zutenean, inudea ekartzen zuten etxera jaioberria hazteko. Hazamak (1) izatea bazen estatus soziala adierazteko modu bat ere.

Behar handia zegoenez, emakume askok ogibide honetan aritzeko "aukerari" heldu zioten beraien familiei laguntzeko. Antza goi etorriko familiek penintsulako iparraldeko jendartea odol garbikotzat hartzen zuten, eta emakume horiek nahiago zituzten. Langileak, indartsuak eta otzanak izatearen ospea ere bazuten eta emakume euskaldunen kasuan, hizkuntzari lotutako komunikazio eragozpenak tarteko, beharbada are eta funtzionalagoak irudituko zitzaizkien.

Istorio honi abiapuntua eman dion protagonistaren inguruan... Nolako izango zen Justa Aramaiotik Zaragozara egindako bidaia? Ze pentsamendu eta emozio izango zituen? Nolako harrera egingo zioten Zaragozako etxean? Emakume euskalduna izanik, ze komunikazio mota izango zuen ugazabekin? Ze lotura sortu zen edoskitzen zuen umearekin? Euskaraz abestuko zion akaso...

Inudeak bi urtez egoten ei ziren umea hazten. Batzuk, denbora hori pasata, herrira bueltatzen ziren diru pixka bat eginda. Familia eta baserria aurrera ateratzen jardungo ziren. Beste batzuk, beste familia



Justa Lonbide Unzueta nagusitan.
(*Familiak utzitako argazkia*).

boteretsuren bateko jaioberriren bat haziz luzatuko zuten egonaldia.

Kantabriako inudeen kasuan, hiru hilabetez umea edoskitzearen truke irabazitako diruarekin, esne-behi bat irabazteko beste ei zuten. Horri esker, inguruko ekonomiari bultzada garrantzitsua eman zioten.

Neskame eta umezainen aldean, inudeek nahiko tratu ona jasotzen zutela uste da. Familia aberatsak hauek osasuntsu eta ondo elikatuta egoteaz arduratzen ziren. Finean, umea ondo hazteko emakumeak ondo zainduta izateak komenizitzaie.

Justa Lonbide, esan bezala, Zaragozan egon zen. Aramaioko beste emakume batzuen arrastoa jarraituta Iruñean eta Sevillan aritutakoen berri ere izan dugu.

Kantabria aldeko emakume asko Granadara joaten omen ziren. Haien inguruko dokumentazioan datu harrigarriak topatu ditugu. Bidaia luzeak zirenean, esnea ez mozteko, inude etako batzuk txakurkume bat eramaten omen zuten esnea ateratzen laguntzeko.

Hiriburu etako familia aberatsen eta mendi inguruko emakumeen arteko loturan, apaizek paper erabakigarria jokatu zutela ondorioztatu dugu. Horiek emakumeen moraltasuna ziurtatzeaz arduratzen ziren eta kontaktuak sortzen lagunduko zuten ziurrenik.

Justaren istorioa hamaika emakumeren bizitzekin lotuta dago eta horiek isiltasunetik atera eta ezagutzea nahiko genuke. Lerro hauek irakurtzen arizaren oketxean gai honen inguruan hitz egitera gonbidatzen zaituztegu, argazki betetako zapata kutxetan dauden altxorak astindu eta kontakizun honen haria osatzen laguntzea eskertuko dizuegu, emakume haien bizitzek gu ere osatzen gaituztelako.

OIHANA AMESKUA PEREZ

Eustaki. Oroitzapen biziak.

EUSTAKI AGIRIANO ZUAZUA SUÑA AUZOKO PALAZIO BASERRIAN JAIO ZEN 1924. URTEAN. AITA ETXEKOA ETA AMA ARETXABALETAKO EGILOR BASERRIKOA ZEN. BOST SEME-ALABA IZAN ZITUZTEN, EUSTAKI GAZTEENA. UNTZILLAKO ESKOLARA JOAN ZEN ZAZPI URTETATIK GERRA HASI ZEN ARTE, JULIA MAISTRA BURGOSTARRAREKIN. GERRA OSTEAN JARRAITU ZUEN ESKOLAN ALDI BATEAN, MIKAELA PORTILLA MAISTRAREKIN. BIZI GUZTIA EMAN DU JAIO ZEN BASERRIAN. ARETXABALETAKO ISURIETA AUZOKO OLABE BASERRIKO ANTONIO ZUBIZARRETAREKIN EZKONDU ZEN ETA ZAZPI SEME-ALABA IZAN ZITUZTEN.

Eustaki dugu Aramaioko bizilagun zaharrena, herriaren beraren oroimenaren gordailu. Etxeko epeltasunean solasaldiari gogotsu heltzen dio eta memoriaren misterioei bide ematen die garai batekoak, orainaldikoak eta aurrera begirakoak txirikordatuz. Gozamina da berarekin hitzen zurrunbiloan murgiltzea eta bere kontaeraren doinuak harrapatzen uztea.



Argazkia: Jose Maria Garcia Arrillaga.

Kontuaketa kantuakirtetzen dira mendea betetzear duen andre honen barrenetik. Arrasateko dragoiak bailaran triskantzak egiten zituenekoak, bere aitak, urretxak karandu bitartean kontaktzen zituen Pernando Amezketarraren ingurukoak... Nolanahi ere, kontakizun guztien artean badira zirrara bereziasorrazten digutenak. Gerrarekin lotutako oroitzapenen kontakizunean kanoi hotsak entzuteraino hel gintezke Eustakiren ahotan.

Eustakik ondo gogoan du gerra Aramaixoko lurretan gorpuztu zen eguna, baita gerraren amaieraren

berri izan zuten unea ere. Berak dioen bezala, memoria zatika agertzen da, bere kasa, baina pasadizo batzuk bere biziko indarra dute.

Milizianoak iritsi dira

Palazioko andreak kontaktu digunez, San Andres eguna zen. Bere ahizpa nagusia, Basili, kalera jaitsi zen familia bakoitzari zegokion errazionamenduaren bila. Handik baserrira bueltatu zenean kalean ikusitakoaren berri eman zien etxekoei: Aramaio milizianoz beteta zegoen. Gerra bertan zen.

Gauean Suñako bizilagunak lo zeudela, auzoko txakur guztiak hasi

ziren zaunkaka erabateko aztoramenduan. Eustakiren amak alabei lehioetik begiratzeko eskatu zien, zaunken jatorria zein zen jakiteko. Gauaren ixiltasuna pausuen erritmoarekin urratuz, milizianoak ziren auzoa zeharkatzen, frenterako lekuak hartzen. Eustaki martxa horretan aurrera zihoazen gizonen ibileraz akordatzen da eta nola zeramatzaten fusilak tente, sorbaldaren kontra, eta baita beraien kaskoen isladak eragin zion zirrara ere.

Gerra beraien bizitzetara heldu zen eta hainbat hilabetetan gerra betean bizi izan ziren. Suñako baserri bakoitza zeregin baterako antolatu zuten milizianoek: Garaikoetxean eta Baraioenan zapadoreak zeuden, lubakiak egiten zituztenak; Baroiena ospitalea zen eta Palazio, milizianoen deskantsorako erabiltzen zuten. Erasoek irauin bitartean Suñako familiek baserrietan eutsi zioten bizimoduari hala edo hola eta milizianoekin batera bizi izan ziren, halabeharrez.

Eustakik dienez, milizianoek soldadu nazionalen eraso ei eusten zieten. Hauek Muxibarretik jaurtitzen zizkieten bonbak, besteak beste. Airez ere bonbardaketan eta metrailaren zauriak sufritzen zituzten. Milizianoek “El abuelo” hegazkina aipatzen omen zuten behin eta berriz. Hori omenen zehaien itzaropena, nazionalen hegazkinei

aurre egiteko beharrezkoa zuten abioia. “El abuelo” ez zen sekula heldu, milizianoak erretiratu egin behar izan ziren eta frankistek aurrera egin zuten Bilborantz.

Gauaren ixiltasuna pausuen erritmoarekin urratuz, milizianoak ziren auzoa zeharkatzen, frenterako lekuak hartzen.

Untzillako kanpandorrea
Gerrak kontakizunetan murgilduta, Eustakiren gogoak Untzillako kanpandorrearen inguruko gertaera batekin piztu da. Elizako dorrean, erasoaldien ondorioen arabera, alde batekoen edo beste koen bandera ikus zitekeen zintzilik, ba omen zuen, beraz, nolabaiteko balio sinbolikoa (eta estrategikoa) kanpandorrea bereganatzeak.

Gure kontalariak adierazi bezala, etxe inguruan zegoen miliziano batek bere ahizpa Basiliri ohartarazi omen zion laster hots handia entzungo zutela Suñatik eta neskatilaren

harriduraren aurrean, mutilak Untzillako dorrea dinamitatu egingo zutela jakinarazi zion.

Aita ganaduei arbia ematen ari zitzairen kortan eta haren bila abiatu zen alaba, beldurtuta. Milizianoak esandakoa kontatu zion aitari eta honek, entzundakoak eragindako amorrazioaz, higitai lurrera bota eta etxe ostetik, ezkutuan, “Kulebras” sarjentoaren bila joan zen Garaikoetxera, ziztu bizian. Untzillako kanpandorrea botatzea astakeria zela eta ezin zitekeela halakorik egin aurpegiatu omen zion eta sarjentoak ere horretan bat egin zuen. Honek Aramaiora telefonoz deitu ei zuen operazioa bertan behera uzteko agindua emanaz.

Gerraren amaiera

Eustaki sasiarte baten aurrean zegoen kabi bateko txori-kumeak harrapatu nahian; besoa luzatuta animalitxoak ehizatzeak ahaleginari emana. Orduan kanpaiak entzun ziren behin eta berriz. Auzo guztietako kanpandorreetatik zetorren hotsa. Bizilagunen oihiak hasi ziren entzuten jarraian: gerra bukatu da! gerra bukatu da! Eustaki, txoriak harrapatzeak saiakera bertan behera utzi eta baserrira abiatu zen korrika, pozarren.

Eskerrik asko, Eustaki, zure hizketaldiaren goxotasun eta indarragatik.



aibala! LEHIAKETA

Aramaixon bai. Baina non dago?

Euskal Herriko mendi punta askotan daude postontziak, badaki hori gutxi edo gehiago mendira joan den edozeinek. Forma eta itxura ezberdinak izaten dituzte. Lehenengoa Anboton jarri zuten 1915ean; aizkora itxurakoa zen eta oraindik ere han dago.

1918an 100 Mendien lehiaketa sortu zuten, eta horrek ekarri zuen gailur gehiagotan buzoiak jartzea. 5 urtetan 100 gailur egitea zen mendizaleei luzatzen zitzaien erronka, eta igoyerak ziurtatzeko postontzian nork bere mendi klubeko txartela utzi behar zuen.

Eta argazkian ikusten duzuna, nongoa dela esango zenuke?

Bidali zure erantzuna honako helbidera: euskara@aramaio.eus
Asmatzen duzuenon artean zozketatuko dugu 50 euroko bonoa Aramaion gastatzeko. Parte hartzeko azken eguna: Irailak 15.